



LAN ETA JUSTIZIASAILA

Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailburuordetza

Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y JUSTICIA

Viceconsejería de Trabajo y Seguridad Social

Dirección de Trabajo y Seguridad Social

EUSKO JAURLARITZAKO LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA ZUZENDARITZAREN ZIRKULARRA, ERTEEN ERAGIN-EPEEI BURUZKOA, EZINBESTEKO KASUETAN.

Orain arte aurkeztutako ERTEetan ezinbesteko egoera eragin duen gertakariaren datari buruz azken asteetan sortu diren zalantzak direla eta, zirkular hau argitaratzen dugu.

Osasuneko sailburuaren 2020ko martxoaren 13ko Aginduaren bidez eten ziren "aurreko prestakuntza-jarduera publiko eta pribatuekin" lotutako espedienteek egun berean dute erregulazioaren hasiera-data.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak ezartzen dituen pertsonen zirkulazioreremuetako euste-neurriekin, merkataritza-jarduerekin, kultura-ekipamenduekin, establezimendu eta jolas-jarduerekin, ostalaritza- eta jatetxe-jarduerekin, kultu-lekuekin, garraioekin eta komunikabideekin lotutako espedienteek egun berean dute erregulazio-hasiera.

Ile-apainketako jarduerarekin zerikusia duten espedienteak, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren jarduera eteteari erantsita daudenak, hurrengo egunean hasiko dira arautzen, hilaren 15ean.

Adinekoentzako eguneko zentroen jarduerarekin lotutako espedienteen etendura Osasuneko sailburuaren 2020ko martxoaren 14ko Aginduaren bidez ezarri zen, eta erregulazioaren hasiera-data hilaren 15a da.

Turismo-ostatuko establezimenduekin zerikusia duten espedienteak, martxoaren 19ko SND/257/2020 Aginduaren bidez eten zirenak, agindu hori argitaratzen den egunean bertan hasten dira arautzen.

Osasuneko sailburuaren martxoaren 24ko Aginduaren bidez (2020ko martxoaren 27an argitaratua) eten ziren osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetan aldeztutako programaturako laguntza-jarduera atzeragarriekin lotutako espedienteak onartu ziren egunean bertan hasi ziren arautzen, hau da, martxoaren 24an.

Funtsezkoak ez diren gainerako jarduerak, baldin eta Enplegua Aldi Batez Arautzeko Espediente bati atxiki bazaizkio, eta martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege Dekretuaren bidez eten badira, argitaratzen diren egun berean hasiko dira arautzen.

Martxoaren 29ko 10/2020 Errege Lege Dekretuaren Eranskinean funtsezkotzat jotzen diren jardueren etenaldiak martxoaren 29tik aurrera baino ezin izango dira hasi erregulazioan, egun hori barne.

Hori guztia, hargatik eragotzi gabe gobernu-agintaritzaren batek bere jardueraren sektoreari dagokion data baino lehenagoko itxiera agindu izana, edo eskaerak bere jardueraren sektorerako dekretatu denaren ondorengo erregulazio-data bat ezartzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko apirilaren 16a